


BERTSOLARITZAREN TXOKOA

XENPELAR BERTSO ESKOLA

ANTOLATUTAKO EKITALDIAK

MADALENETAKO BERTSO SAIOA

Iazko madalenetan, ohiko bertso saioa izan genuen, hain zuzen Santio egunean. Xabier Amuriza eta Jokin Sorozabal aritu ziren kantari eta esan behar da saio polita eskaini zigutela.



Madalenak 2002. Xabier Amuriza eta Jokin Sorozabal kantari

IV. TXANTXANGORRI SARIA

Herri mailako Bertsolari Txapelketa hau 4. aldiz jokatu zen iazko uztailaren 19an, Zamal-bide inguruko Auzolan Elkartean. Zortzi bertsolarik kantatu zuten, Aitor Albistur garaile ger-tatu zelarik. Lan hau argitaratzen den garai beretsuan jokatuko da aurtengoa, hau da V. Saria.



Auzolan Elkartean, afari ona egin eta gero, bertsokak entzuten giro ederrean

Argazkia: Julian Albistur



Xabier Zabaleta, Lau Haizetarako lehendakaria, irabazleari saria ematen

Argazkia: Julian Albistur



Aitor Albistur kantari Auzolan Elkartean, IV. Txantxangorri Saria jaso ondoren

XIV. BERTSOPAPER LEHIAKETA. “ZAPIRAIN ANAIK” SARIA

Urtero bezala, Bertsopaper Lehiaketa hau 17 urtetik gorakoentzat antolatzen da. Iazko Santo Tomas egunean banatu ziren sariak, emaitza hauekin:

- Lehen Saria: *SEHASKA HUTS HARI*. Jon Martin Etxebeste. Oiartzun.
- Bigarren Saria: *IGANDE GOIZ BATEAN*. Joxe Luis Urdangarin. Hernani.
- Lehen Akzesita: *TXALAPARTA*. Pili Eizagirre. Zarautz.
- Bigarren Akzesita: *ARGENTINA*. Mikel Arrillaga. Eibar.

IV. BERTSOPAPER LEHIAKETA. “IBON ZABALA” SARIA

Aurreko urteetan bezala, Bertsopaper Lehiaketa hau 16 urte arteko gazteentzat antolatzen da, *Oarsoaldea* mailan (Errearteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia). Emaitzak, hauek izan ziren:

- Laugarren Saria: *GURE JAINKOA*. Urtzi Etxeberria. Errearteria.

Beste sariak eman gabe uztea erabaki zuen epaimahaiak.

Sarituriko gazte hau Xenpelar Bertso Eskolako kidea dugu.

SANTO TOMAS EGUNeko BERTSO SAIOA

2002ko abenduaren 21ean, bertsopaper sariak banatu ondoren, bat-bateko ohiko saioan Joxe Agirre, Jon Maia, Jexux Mari Irazu eta Mikel Mendizabal ezagunekin batera, Xenpelar Bertso Eskolako Aitor Albistur eta Iker Goñi aritu ziren Niessen Kulturgunean. Gai-jartzaile lanetan, Antton Kazabon oiartzuarra.



Jon Martín, Zapirain Anaiak Saria jasotzen *Bit*a-ren eskuetatik

Argazkia: Julian Albistur



Ilker Goñi kantari Niessen Kulturgunean, Santo Tomas egunean

Argazkia: Julian Albistur

OARSOALDEKO II. BINAKAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Joandako martxoan burutu zen Eskualde mailako Txapelketa hau, Oiartzungo Bertso Eskolak eta Xenpelar Bertso Eskolak antolatuta. 18 bertsolarik parte hartu zuten, 9 bikote osatuz. Horietatik 7 bertsolari gure eskolakoak.

Hiru kanporaketa jokatu ondoren (Lezon, Pasai Donibanen eta Oiartzunen) finala gure herriko Batasuna Elkartean jokatu zen, martxoaren 29an, afalostean. Asier Bergaretxe eta Jon Martin, oiartzuarrek lortu zuten txapela, saio ona egin eta gero.

Gure bertsolariek, finaletik kanpo gelditu arren, ongi kantatu zuten, euren maila erakutsiz. 2005ean jarraipena izango du. Ea orduan zorte hobea izaten duten.



Asier Bergaretxe eta Jon Martín txapeldunak Batasuna Elkartean

Argazkia: Julian Albistur



Batasuna Elkartean, ongi afaldu eta gero, jendea adi, bertsoak entzuten

Argazkia: Julian Albistur

BERTSO KRITIKA IKASTAROA

Maiatzaren 9an Urdaburu Mendizale Elkarteak *Bertso Kritika* deituriko ikastaroa antolatu genuen, Karlos Aizpurua oiartzuar ezagunaren eskutik. Gai-jartzaileari buruz aritu zen, bere ohiko modu egokian; aditua baita gai hauetan. Zaletuen aldetik erantzun ona izan zuela esan genezake. Hurrengo urtean jarraipena izango du. Ekintza hauen arrazoia eta helburua bertsozaleen artean jende formatua lortzea da. Bertso saioetan tajuzko gaiak jartzeko gai izango dena. Bertsolaritzaren munduan beharrezkoak baitira gai-jartzaileak ere. Askotan behar adinako garrantzirik ematen ez bazaio ere, gai-jartzailearen figura zaindu beharrekoa da, emaitza onak lortzeko.

BERTSO ESKOLAKO PARTAIDEEN BERTSO SAIOAK

Aipagarrienak hauek izan dira:

- Arkaitza Tabernak antolatutako saioa (2003-5-9). Lehia kutsurik gabeko saio honetan, Nerea Elustondo, Aitor Sarriegi eta Iñaki Apalategi kanpotarrekin batera, herriko Aitor Albistur, Josu Oiartzabal eta Gorka Etxeberria aritu ziren. Saio polita benetan eskaini zigutena. Zaleok gozatzeko aukera izan genuen.
- Bertso-afaria. Niessen Lantegiko Euskara Taldeak eta Lau Haizetara Euskaldunon Elkarteak antolatutako saioan (2003-5-16), Sustrai Colina eta Unai Iturriaga bertsolari ezagunekin batera, Iker Goñi eta Arkaitz Oiartzabal aritu ziren.
- Urte zahar eta Santa Agedako koplak kantatzen ere jardun zuten, ohiko den bezala.
- Herrian beste saio batzuk izan dituzte eta inguruan ere bai. Donostian, Pasai Donibanen, Astigarragan eta abar.

Modu apal batean bada ere, euren ibilbidea egiten ari dira.

Aurtengo udazkenean Gipuzkoako Txapelketa jokatu da eta Bertso Eskolako bospasei kide lehia izango ditugu. Ez da gutxi.



SEHASKA HUTS HARI

Doinua: Amaren bularra

1.

Amaren bularra
haurraren janari,
amaren negarra
etxean nabari.
Begira ari zaio
goibel, baina adi,
inoiz baino hutsago
dagon sehaskari.

Amak, izanik horren
animo makala,
harrigarria nola
sehaska zabala
kulunkatzen egiten
duen eginala
heriotza lokartu
nahiean bezala.

4.

Sehaska hutsean
malko bat logale
denbora luzean
penaren maitale;
maindireak ez dira
hezetasun zale
berotasuna falta
zaien an seinale.

Masail gorriak dira
malkoen garraio:
bakoitzak bere bide
motzari darraio.
Sehaskaren kulunkak
kurrinka bat jaio;
Xabiartxon negarra
iruditu zaio.

2.

Sehaska muturra
eskuez oratu,
sentitu egurra,
eta kulunkatu;
nahiz Heriok lo hartu
diola ohartu
samina ezingo du
hain erraz lokartu.

Erditzeko unea,
oroitzapen isil:
Medikuen bisaiak
ez zeuden hain trankil,
bat-batean geratu
ziren denak zurbil.
Heriotza jaio zen
eta jaiotza hil.

5.

Tristuraren aurka
borrokan, alferrik.
bere buruan du
kanta bat bakarrik:
“Zaude isilik haurra
ez egin negarrik,
munduak ez du-eta
malkoen beharrik”.

Amak sehaska ondoan
ezin egon alai
haurraren negarra noiz
entzungo duen zai;
munduak ez du behar,
munduak ez du nahi;
munduak ez agian,
baina amatxok bai.

3.

Begitan behera,
itsasoko euri,
masailen parera
doaz anpulu bi.
Bere negar lantuak
suabe ta urduri
ia sehaska kanta
berri bat dirudi.

Bere begi gorriei
jausi zaien ura,
masaitetan behera
joandako hura,
airea zeharkatuz
behera heldu da
Xabiartxo egongo
litzaken lekura.

6.

Intziri xumeak
sortzen du kupida,
baina isiluneak
okerrago dira.
Etxean etsipena
hezetzen ari da
bi malko dauzka ate
ertzetik begira.

Nahiz aitaren begiak
joan sehaskara
bera gehien kezkatzen
duena ama da;
nahiz pena izan behar
lukeen beharbada
errukiz zipristindu
zaio begirada.

7.	8.	NEURRIA
Errukiak ez du ezkututzen minik ta kopeta beztu du hori jakinik. Amarengana doa pausu bat eginik kontsolatzeko hitzik topatu ezinik.	Amaren bularra haurraren janari, amaren negarra etxean nabari. Begira ari zaio goibel, baina adi, inoiz baino hutsago dagon sehaskari.	6A 6B 6A 6B 7 6B 7 6B
Aita emaztearen ondoan serio kontsolatzen ari da zer erremedio. Amak laztan batekin garbi esan dio: Halakoetan hitzek ez dute balio.	Melodia urrunak betetzen du gela: "jarrai zure bidetik hobe da horrela gauza denen gainetik haizea bezela"; pena, etxe honetan haizerik ez dela.	7 6D 7 6D 7 6D 7 6D

Zapirain Anaiak. Lehen Saria

Egilea: Jon Martin Etxebeste

Xabier Leteren kanta batean oinarritutako doinu berezia da. Zailtasun bat erantsi dio nahi-ta, Jon Martin egileak: Bigarren eta laugarren lerroak errimatu egiten dute sorta honetan. Hiru errima mota bertso bakoitzean (A, B eta D).

